



ESKORIATZAKO UDALARI PROPOSAMENAK

URA
(2.004-2.005)



Kaixo,

Eskoriatzako lehenengo zikloko ikasleak gara. Iaz Almenekook Agenda 21 programan sartu ginen paperaren gaia jorratuz.

Ikasi ere asko ikasi genuen horren inguruan eta gaur egun ere hartutako konpromezuak betetzen jarraitzen dugu: papera eta zakarra bereiztu, berrerabili, birziklatzera eraman...

Aurtengo gaia, ura, ere oso polita izan da. Bi ikastetxeetan ura zenbat tokitatik doan aztertu dugu, nola aurreztu dezakegun, nolako jarrerak hobetu behar ditugun ura ondo erabiltzeko...

Museoan ere izan ginen eta bertan egindako saioan jakin genuen gure gorputzeko hiru laurden ura dela. Hau guztia oso bitxia izan zen guretzat eta gainera ur mota ezberdinak probatu eta usaindu genituen.

Hori bakarrik ez, gero kalera ere joan ginen eta estolden tapa desberdinak aztertu genituen: ur garbia eta ur zikina daramatenak, suhiltzaileek erabiltzen dituztenak, e.a.

Ura erabiltzerakoan zikindu egiten dugu eta erre kara joango denez, aurretik garbitu beharra dago bestela... nola mantenduko ote ditugu arrainak bizirik?

Badakigu Eskoriatzako ur zikina hodi batzuetatik doala eta erreka ez dela zikintzen, baina Arrasaten ur zikin hauek Deba erre kara doazela. Honen aurrean guk nahi duguna hau da:

Epeleko araztegia ahal den azkarren hasi eta bukatzea gure errekek garbi egon daitezen. Honen alde zuen esku dagoen guztia egiteko eskatzen dizuegu.

Mila esker zuen arretagatik.



Hola,

Somos alumnos y alumnas del primer ciclo de Eskoriatza. El año pasado Almen comenzó a trabajar el proyecto sobre el papel dentro del programa de Agenda 21.

Aprendimos mucho durante todo el año y hoy por hoy seguimos manteniendo muchos de los compromisos que adquirimos entonces, separar el papel del resto de la basura, reutilizar todo lo que se pueda, etc.

El tema principal de este año, el agua, ha sido muy interesante, al igual que el anterior. Entre otras muchas cosas hemos analizado por dónde llega el agua a nuestras escuelas, cómo podemos ahorrar el consumo del agua, qué comportamientos tenemos que tener en lo que al agua se refiere...

También estuvimos en el Museo Ibarraundi dónde aprendimos que tres cuartas partes de nuestro cuerpo es agua y, además, pudimos probar y oler diferentes tipos de agua que tenemos en Eskoriatza.

No solo eso, también, tuvimos ocasión de salir a la calle y observar las diferentes tapas de las alcantarillas que hay en nuestro municipio. Las que indican que por debajo pasan tanto aguas limpias, como sucias, las utilizadas por los bomberos, etc.

El agua que llega todos los días a nuestros ríos esta sucia, por lo que deberíamos limpiarla antes, ¿cómo podremos mantener vivos los peces sino?

Sabemos que el agua sucia de Eskoriatza se canaliza por unos tubos por lo que el río no se contamina, pero en Arrasate toda la suciedad acaban en el río Deba. Ante ésta situación nuestra propuesta es la siguiente:

Pedimos que las obras de la depuradora de Epele empiecen y acaben cuanto antes y que hagáis todo lo que está en vuestras manos para ello.

Gracias a todos y todas por vuestra atención.



Arratsalde on guztioi:

Eskoriatzako Ikastetxeetako 3. eta 4. mailako ikasleen izenean etorri gara beraien ordezkariak baikara. Bukatzear dagoen ikasturte honetan “ura”-ren gaia landu dugu bai ikastetxean eta baita bertatik kanpo ere.

Azaroan hementxe egon ginen eta ikusi genuen nola Eskoriatzako Udalak sinatu egin zuen bere partaidetza Tokiko Agenda 21ean. Zuek, herritarrek, guk ikasleok... denok lan egin behar dugu jasangarritasunaren alde, horrela mundu hobe lortuko baitugu denontzat.

Guk eskolako diagnostikoa egin genuen. Ondoren komisioa elkartu eta denon artean ikastetxeetan aurrera eramateko konpromezuak hartu ditugu.

Baina urtean zehar ikastetxetik irten ere egin gara uraren gaia lantzen jarraitzeko. Honela, zenbait ikasle Urkuluko araztegiara joan ziren eta oso interesgarria iruditu zitzaaien han ikusitakoa eta asko ikasi zuten.

4. mailakook Eskoriatzako zenbait iturri eta iturburu aztertu genituen eta konturatu ginen horietako batzuk ez daudela egoera onean. Beraz, idatzi honen bitartez eskera hau egin nahi genizueke:

- **Iturri zahar, Antontxu eta Makinetzeko iturriek urik ez dutenez botatzen, horiek konpontzea.**
- **Arbiñosteko eta Uretseko iturburuak errekan daude. Oso zaila denez bertan ura edatea, bertara hurbiltzeko bide bat egitea eskatzen dizuegu.**

Gure eskaerak kontuan izango dituzuelakoan, eskerririk asko.

3. eta 4. mailako ordezkariak.



Buenas tardes a todos y todas:

Venimos en representación del alumnado de 3º y 4º de Eskoriatza. Durante el curso que está a punto de terminar hemos estado trabajando el tema del agua tanto en las escuelas como fuera de ellas.

En noviembre estuvimos aquí y fuimos testigos de la firma del acuerdo sobre el compromiso de trabajar en el proyecto de la Agenda 21 Local. Vosotros y vosotras, la ciudadanía y también el alumnado tenemos que trabajar a favor del desarrollo sostenible, ya que sólo así conseguiremos un mundo mejor para todos y todas.

En cada una de las escuelas hemos realizado un diagnóstico sobre el estado del agua y su consumos. Tras analizar los resultados en las comisiones correspondientes nos hemos comprometido a cuidar más el uso que hacemos del agua.

Pero a lo largo del año también hemos salido de nuestras escuelas para seguir trabajando el tema del agua. Entre otras salidas, algunos de nosotros y nosotras hemos ido a Urkulu, visita que nos pareció muy interesante y en la que aprendimos mucho.

Los alumnos y alumnas de 4º hemos tenido la oportunidad de analizar la situación de las diferentes fuentes que podemos encontrar en Eskoriatza. Algunas de estas fuentes no están en buen estado, por lo que mediante este escrito queremos pedirnos lo siguiente:

- **Las fuentes de Iturri Zahar, Antontxu y Makinetxe no tienen agua, pedimos que se arreglen cuanto antes.**
- **Los manantiales de Arbiñoste y Urets están en el río. Resulta complicado acceder a ellos por lo que proponemos que se haga algún tipo de acceso.**

Esperamos que tengais en cuenta nuestras peticiones, gracias por todo.

Representantes de 3º y 4º.



Kaixo denoi,

Guk, 5. eta 6. mailako ikasleok, Eskoriatzan ibaia nahiko ur kalitate onarekin doala ikusi dugu bertan agertzen diren animalia eta landareak aztertu ondoren. Oxigeno kantitatea eta PH-a ere nahiko emaitza egokietan agertzen zen. Dena den, zikinkeria asko aurkitu genuen ibai inguruan eta honek kezkatzen gaitu.

Hau guztia kontuan harturik, Eskoriatzako Udalarari zera eskatzen diogu:

- **Urtean behin erreka eta erreka bazterrak garbitzea. Garbiketa ongi burutzeko erreka jaisteko ranpak edo eskailerak jartzea ere eskatzen dugu.**
- **Erreka garbitu ondoren zuhaitz egoki eta autoktonoak landatu erreka bazterretan. Era honetan uraren tenperatura mantentzeaz gainera oxigeno mailak ere mantenduko dira.**
- **Ur kalitatea eta errekaen egoera hobetzen direnean animalia autoktonoak jartzea. Horrela errekaen bizitza indartzeko.**
- **Herritarrei ibaiaren zainketaren inguruko informazioa zabaltzea. Adibidez, uraren garrantziaz informatzeko triptikoak etxeetara bidaliz edota erreka inguruetan kartelak jarritz: “ZAINDU NAZAZU MESEDEZ” bezalako esaldiekin.**
- **Arrasaten egin behar duten araztegia ahalik eta azkarren egitea ere eskatzen dizuegu.**

Eskaera hauek guztiak kontuan hartuko dituzuelakoan, aurrez mila esker.

5. eta 6. mailako ikasleak.



Hola a todos y todas,

Los alumnos y alumnas de 5º y 6º de Eskoriatza hemos analizado la flora y fauna del río y hemos podido comprobar que la calidad del agua es bastante buena. Las cantidades de oxígeno, así como los niveles de PH eran los apropiados. Aún así, nos preocupa la cantidad de basura y suciedad que nos encontramos tanto en el río como en sus alrededores.

Teniendo en cuenta todo esto, pedimos lo siguiente al Ayuntamiento de Eskoriatza:

- **Pedimos que una vez al año se limpien tanto el río como sus entornos. Para facilitar los trabajos de limpieza y el acceso al río proponemos, también, que se hagan rampas o escaleras en algunas zonas.**
- **Tras la limpieza del río sería conveniente que se plantaran árboles autóctonos en sus alrededores ya que así se conseguirá mantener tanto la temperatura del río como sus niveles de oxígeno.**
- **Cuando la calidad del agua mejore pedimos que se traigan animales autóctonos que ayuden a regenerar la vida del río.**
- **También nos parece necesario que los ciudadanos y ciudadanas de Eskoriatza sean informados sobre la importancia del agua y su buena utilización. Para ellos, proponemos que se envíen trípticos informativos a las casas y también que se pongan carteles alrededor del río con frases como: "CUIDAME POR FAVOR".**
- **Pedimos también que la depuradora de Arrasate se haga cuanto antes.**

Esperamos que consideréis nuestras peticiones, gracias de antemano.

Alumnos y alumnas de 5º y 6º.